

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko otsailaren 28a

*



Jose Maria Satrustegi, Arruazuko etxean.

LUIS AZANZA

Jose Maria Satrustegirekin solasean

■ Jose Maria Satrustegi euskaltzain eta ikertzaile arruazuarra sorterrira itzuli zen iaz, 40 urtez Luzaiden eta Urdiainen apez izan ondoren. Berriki, beste ardura bat kendu du gainera, Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkartzarena hain zuzen. Ez nekatuta zegoelako, «lan burokratikoak ito» egiten zuelako baizik. Ez da lanaren

beldur, «bizi guztia eman baitut lanean». Apez, euskaltzain, euskaltzale, ikertzaile... *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarien sortzaile eta zuzendari, ikastolen laguntzaile... Bere ekarpen joriaz mintzatu gara Jose Maria Satrustegirekin. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Badatorrela, badatorrela! Kirol oinetakoak eta arropa arina prestatzen has zaitzekete, badatorrela Korrika! Urte osoa sofatik altxatu gabe *zapping* egiten pasatu dutenei artikulazioei herdoila kentzeko eta muskuluak indarberritzeko garaia heldu zaie. Egunero paseotxo bat menditik, edo bizikletaz ordu erditxo bat. Baina kontuz! Poliki-poliki, ezbeharririk ez dugu nahi eta. Seguru bat baino gehiagori itsu-itsuan, batere berotu gabe, kilometro pare bat lasterka egiten hasi eta sasoi-usteak jota ohatzean gelditu beharra tokatuko zaiola egun handia ailegatzean. Aintzinetik entre-

natzea ona da, baina ez ditzagun gure gaitasunak estima handiegian jarri. Hala ere animo!

Hurrengo eguneko agujetekin ere kontuz. Erraxa da momentuko giroarekin animatzea eta hasieran kilometro bat zena, bi edo gehiago bilakatzea, baina ez da hain erraxa izaten hurrengo egunean etxeko eskilarak jaitea.

Aurten Lesakatik bertatik pasatuko da, arratseko hamabiak aldera, dena iluntasun, dena misterio. Oroitzapen ederrak dakarzit honek, urduritasuna azalean, goxotasuna airean. Beti ikastolako kilometroan atera izan naiz, bai-

na dantza taldekook dagoeneko kilometro bat erosi dugu eta nere indarrei gehiegi eskatzea ez bada bietan egingo dut laster.

Martxoaren hamaseian beraz, zita bat daukagu gure zonaldean, oroimena biztu eta sentimenduak loratzen dituen Korrikarekin.

Nik dagoeneko-usaina hartu diot aurtengoari, sagardotegi nazionalen korrika giroa azal-azaletik sumatzen baitzen. Gozategiren kanta arrats osoan belarri ondoan izan nuelako diot batez ere. Astigarragan denetarik egin genuen, korrika ezik denetarik. X

Korrika

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruñea: Escarabajos taldeak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, martxoak 6, gaueko 23:00etatik aitzina Cotton Club aretoan.

Erratzu: Eskixu, Bizkar Hezurra, Otsondo 602 eta Txakun taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, gaueko 11:00etan.

Altsasu: Korrika kulturalaren baitan Gaztetxean kontzertua izanen da bihar, gaueko 10.30etan.

Iruñea: Korrika kulturalaren barruan Benito Lertxundik kantaldia eskainiko du datorren ostegunean, martxoak 6, arratsaldeko 20:30etan.

ANTZERKIA

Lesaka: Atxaspi tabernan *Tentazioak* antzezlanaren taularatuko da gaur, 23:00etan.

Iruñea: Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoak izanen dira Salarren aretoan bihar, eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 16:30etan.

ERAKUSKETAK

Burlata: Sara Agirre, Isabel Eraso, Josexo Aginaga eta Quico Alvarezen lanak ikusgai izanen dira martxoaren 6ra arte Kultur Etxean.

Zizur Nagusia: Julio Basterretxea, Galileo Ramos eta Alex Urdanosen Amazoniari buruzko argazkiak ikusteko parada dago Kultur Etxean martxoaren 2ra arte.

Lizarrak: 'Litografiak 100 urte Artelekun' erakusketa ikusteko parada dago Gustavo de Maeztu museoa martxoaren 23ra arte.

ZINEMA

Iruñea: Golem zinema aretoetan *Anna-Anna* pelikula eskainiko da datorren asteartean, martxoak 4, 20:00etan.

Lizarrak: Julian Romano Musika Eskolan *Bambola* pelikula eskainiko da gaur, 20:00etan.

BESTELAKOAK

Berroeta: Diapositiba emanaldia izanen da datorren martxoaren 4an, asteartea, arratsaldeko 8:30etan.

Iruñea: Korrika kulturala aitzakiatzat hartuz, trikiti-bertso-bira antolatu da datorren asteazkenean, martxoak 5. Ibilaldia Gaztelu plazatik abiatuko da 20:00etan eta Alde Zaharreko kaleetan barna ibiliko da.

Tutera: Felix Izetarekin xake partidak jokatzeko aukera izanen da Beterri Elkartean arratsaldeko 5:00etan egunero, martxoaren 4tik 12ra arte.

Lizarrak: Koadrilen arteko herri kirol txapelketa eginen dute bihar goizean. Ondotik, tortila txapelketa izanen da Donibane plazan.

nafar kronika

Patxi Larrion

Eztialdiak

Ezkongaiek beren bidea egin dute. Pasa den udan, hamaikagarrenez, *Aitabitiaren* aginduetara jarri ziren. Eztei kontratuan bazen argitu gabeko kontratik, Udalarena fite konponduko zelakoan baitziren. Egun, aurrikusitako gehiena berezko bidera eraman dute, aurrekontuak aurrean, eta horien karirik Nafarroa Garaia gobernarritasuna bermatzeko behar den guztia, kiratsaren kontra izandako gurtzada konparazioa. Iratiko urak berbideratu nahj dituzte, zinez ezezaguna aurrekontu puztuek hartutako bidea. Ingurugiroan jarraituz, Urbasa-Andia parke naturala martxan jartzeko pausuak emanak dituzte, alta, naturaltasun falta larderia handiko emakumeak erakutsi duena.

Esan bezala, ezteietan ez zen dena adostu, menturaz, kiratsak hala eskatua, korrika eta presaka eginiko kontratua zen hori. Erresuma Zaharreko hiriburua menderatu ezinean dabil-tza. eta ohi den bezala PSNren jarrerak denon atentzioa deitu du. Politologoek argitu beharreko afera nonbait. Hiriburutza agiriarena akitu ez den honetan, berriz ere kableak hizpide, baina kasu honetan zintzilikatu ordez lurperatuko dituzten kableak dira desadostasuna piztu dutenak. Turismoa da azken urteotan bereziki zaindu den alorra, oraingo honetan haize zakarra dabil, Mendialdean diru gehiegi inbertitu omen da. Zenbaitzuen iritziz ongi inbertituriko dirua, horren lekuko duela bi aste Bertiz aldean izan zen bikote argentinar-filipiniarra, baten batek ezuste ederra hartuko zuen.



asteko pertsonaiak



Jaime Mayor Oreja
Espainiako Barne ministroa

■ Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroa Iruñean izan zen astelehenean gauean, Navarra Foro XXI elkarteak gonbidatuta. Ministroa ETaren aurkako borrokaz hitz egitera etorri zen, eta pazientzia eskatu zuen, «polizia gehiago, batasuna, eta pazientzia handia», hori omen delako indarkeria gainditzeko modu bakarra. Mayor Orejari harrera beroa egin zioten Jaime Ignacio del Burgo UPN-PPko diputatuak, Miguel Sanz lehendakariak, Fernando Sebastian artzapezpikuak, Francisco Javier Ansuategi gobernu ordezkariak eta PSE-PSOeko gestorakoek. Afaldu ondoren, 200 bat entzuleren galderei erantzun zien ministroak eta segidan Noingo aireportura joan zen, propio jarri zioten hegazkina hartzeko.



Yolanda Barcina
Nafarroako Ingurugiro sailburua

■ Yolanda Barcinaren agindupean dagoen Nafarroako Ingurugiro sailean urak ez daude bare. Barcinak Gobernu aldatzarekin hartu zuen kargua, duela bost hilabete, eta geroztik Departamentua erabat aldatu da. Joan den astelehenean Gobernuak Ingurugiroko goi karguak betetzeko lau izendapen berri egin zituen. Aldaketak beharrezkoak direla dio Barcinak, baina kargu aldateten zergatia bestelakoa da. Beren postua utzi duten lau goi karguetatik hiruk (Javier Eneriz, Felix Armendariz eta Juan Luis Beltran) dimisioa aurkeztu dute «egoera jasanezina» zelako. Sailerik alde egitea erabaki dute Barcinak ez zuelako behar den konfiantza ematen, eta gaiak lantzerakoan irizpiderik ez dagoelako.

ahaztu gabe!



LEHIAKETA

Atarrabia: Udaleko Kultura eta Gazteria Zerbitzuak *Pedro Atarrabiakoa* gaztelarazko eta euskarazko VII. Haur Kontagintza Lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko ikaslea behar da izan, eta Atarrabian jaioa edo bertako ikastetxeren batean ikasten ari dena.

Lanaren oinarri dagokienez, jatorrizkoak eta gai librekoak izanen dira, alde batetik idatziriko folio batekoak gutxienez eta laukoak gehienez. Kontuak bi mailatan banatuko dira: Lehen Hezkuntzako III. Zikloko ikasleak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak (DBH). Lanak goitizenezekin aurkezteaz gain, izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa eta ikastetxearen izena adieraziko dira.

Ikasleek beranduenez ere martxoaren 21ean aurkeztu beharko dituzte idazlanak. Epaimahaiak apirilean Atarrabian eginen den Liburuaren Astearen emanen du jakitera irabazlearen izena. DBHko irabazleak 15.000 pezetako saria jasoko du eta Lehen Hezkuntzakoak 10.000 pezetakoa. Bigarren sailkatzen direnek, berriz, 5.000 pezeta lortuko dituzte.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketat.

Irati Irratia FM 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Etxarri-Aranatz


Trikuharriei buruzko ikastaroak

Ekainaren hasieran zabalduko da zortzi kilometroko ibilbide megalitiko

Etxarri-Aranazko Kanpinak ingurugiro heziketari buruzko ikastaroak antolatzeari ekin berri dio Euskal Herriko beste lau zentrokekin batera, eta ekainaren hasieran zabalduko den trikuharrien ibilbidea izango da Sakanan landuko den gaia. Kanpina iazko uztailean zabaldu zen, eta orain trikuharrien inguruko interpretazio zentroa ireki du horrelako ikastaroetarako prestatu duen aterbean.

Alberto Barandiaran / Iruñea

URTE txarra izan zen iazkoa Nafarroako kanpinentzat, areago ateak zabaldu berri zituen Etxarrikoarentzat. Mundu horretan dabilzanek beti errepikatu ohi dute publizitaterik onena ahoz aho zabalduko dela, eta etekinak ikusten hasteko bizpahiru urte igaro behar direla. Mundu horretan dabilzanek esaten dute maiz ostalaritzan gauza berriak eta, batez ere, erakargarriak eskaini behar zaizkiola bezeroari, eta zer hobea inguruak ematen dituen baliabideak aprobetxatzea baino. Etxarri-Aranatzen ugari diren trikuharriak txukundu, seinalizatu eta haien inguruan ibilbide turistiko egiteko asmoa duela zenbait urte plaza-ratu zuen Udalak, baina arazo franko sortu ziren eta proiektua gelditu zen. Hain zuzen ere, kanpina egiteko ibilbide horretarako



Trikuharriak izango dira Etxarri-Aranazko eskaintza kultural garrantzitsuenetakoa.

ARTXIBOKOA

sortua zen dirulaguntza bat baliatu zuten. Iaz lortu zuten kanpinetako arduradunek dirulaguntza Europako Batasunetik eta, udalarekin erdibana, lortu zen zortzi kilometroko ibilbide osoa garbitu, seinalizatu eta prestatzeko egitasmoa aurrera ateratzea. Ekainaren hasieran izango da zabalik.

Floren Vicente kanpinetako arduradunak azaldu duenez, inguru honek ematen dituen auke-

rak aprobetxatzeko sare bat osatu dute Acedoko Kanpinarekin. Uitziko Aterpearekin, Bidarraiko (Nafarroa Beherea) Aterpearekin eta Sestaoko La Arboledan (Bizkaia) Aizelan taldeak duen zentroarekin. Bost enpresa hauen artean Euskal Herriko inguru ezberdinak ezagutzeko aukera eskainiko da, Aizelanez gidatutako ingurugiro ikastaro baten bidez. Etxarri-Aranatzen aurreistoria aztertuko da, gizakiak

aitzinetik naturarekin izan dituen harremanak; Uitzin eta Bidarrain herrietako bizimodua azalduko da, nekazaritza eta abeltzantzen inguruan; Acedon Lanako Mendizerrako ikazkinen bizimoduaz eta ardandegiei buruz azalpenak emango dira eta La Arboledan hiri ingurua erakutsiko zaie ikasleei.

Ikastaroak dagoeneko prestatu daude, eta lehenengo taldea apirillean izango dute kanpinean. X

Doneztebe

Txintxurrak prest dituzte haurrek kantuan hasteko

■ Bihar abiatuko da Bordatxon Nafarroako Haur Kantari Txapelketa

Kike Diez de Ultzurrun / Iruñea

GURE herrialdeko makina bat tokitan ugaltu egin dira nabarmen, azken bolada honetan, kantu entsaioak. Izan ere, ezarriari lakarra kendu behar zaio oholtzara igo baino lehen, ahots gardenak bezain garbiak areto osora hedatu daitezzen. Kasu egin, beti ere, ez baita komenigarria izaten ahots-beroketarik gabe egitea, bertzenaz ahotsa kraskatu liteke.

Nafarroan urteoro-urteoro antolatzen da txapelketa hau, Euskal Herri osokoa bi urtez behin egiten baldin bada ere. Kantuzaleen Elkartean diote merezi duela, mugimendu handia bezain polita sortzen baita kantua- ren inguruan, eta lehiaketako koordinatzaileak, Oskar Brakok

dioen gisan, «ez soilik kantugintzaren edota musikagintzaren aldetik begiratuta, baita euskalgintzaren ikuspegitik ere, haurrek jende aunitz erakartzen baitute; gurasoak, anai-arrebak, osaba-izebak, amatxi eta aitona, hitz batean errateko, etxeko guztiak, eta hori arras garrantzizkoa da». Aurten gainera, barreiatu da txapelketa herrialdean barrena, bertez eskualde batzuk lotu baitira, hala nola Ultzama, Tuter, Irunberri eta bertze.

Bihar lehendabiziko kanporaketa saioa jokatuko da Doneztebe Bordatxon, arratsaldeko 16:30etatik aitzinera. Bihar zortzi Burlatako saioa etorriko da; martxoaren 16an Lizarrak eman dio aterpe lehiari, eta Saio Nagusia Iruñeko Gaiarre Antzokian burutuko da martxoaren 23an. X



Finala Gaiarre antzokian izango da.

ARTXIBOKOA

Berriozar

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Korrika Kulturalaren barruan

■ Mixel Ducau eta Caroline Phillipsen kontzertua gaur

Erredakzioa / Iruñea

KORRIKAREN hamargarren ekitaldiaren inguruan antolatutako Korrika Kulturalaren barruan, hainbat ekitaldi prestatu dituzte Berriozarren bertako Udalak, Euskara Batzordeak eta Berriozarko AEK-k. Ekitaldiak gaur hasi eta martxoaren 12ra bitartean izango dira. Euskal Herri osoko beste hainbat herritan bezala, kantaldiak, lehiaketak, erakusketak eta beste izanen dira datozen egunetan Berriozarren ere. Denen gustuko ekitaldiak prestatu dituzte antolatzaileek.

Gaurko ekitaldiei dagokienez, iluntzeko zortzi eta erdietan kontzertua eskainiko du Mixel Ducau eta Caroline Phillipsen taldeak. Emanaldia Mendialdea ikastetxean izanen da. Talde horrekin batera, gainera, Txantreko abesbatza ariko da. Korrika Kulturalaren barruko hurrengo ekitaldia martxoaren bigarrenean egingen dute Berriozarren. Egun horretan, goizeko hamarretan, Korrikako Pilota Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Mendialdea pilotalekuan.


Martxoaren 3tik 7ra bitartean, bestalde, Korrika guztiek kartek erakusketak izanen da Kultur Etxean. Egunero gaueko bederatziak arte izanen da ikusgai. Egun hauetan izanen da besterik ere, dena den. Martxoaren 4an, hain zuzen, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Korrikaren aurkezpena egingen dute AEK-ko euskaltegian. Aurreko Korrika guztien bideo eta diaporama ere ikusi ahal izanen dute bertan bildutakoek.

Martxoaren 5ean, halaber, Fernando Presaren Alaskatik Tierra del Fuego izeneko diaporama ikusteko aukera izanen da Berriozarren. Emanaldia Gaztetxean izanen da eta arratsaldeko zazpi eta erdietan hasiko da.

Martxoaren 8an, kirola izanen da berriro protagonista Berriozarren Korrika Kulturalaren barruan. Arratsaldeko bostetan, hain zuzen, pilota txapelketako finala jokatuko dute Mendialdea pilotalekuan. Dantzak eta musika-poteoa izanen dira amaizterakoan. Ondoren, gaueko hamarretan, Zulo Alai Elkartean sagardotegi afaria egingen dute, bertsolarien eta trikitalarien laguntzaz.

Azkenik, martxoaren 12an, Korrikako ipuin lehiaketaren sariak banatuko dituzte, goizeko hamarretan. Aurtengo Korrika Kulturalaren azken ekitaldia izanen da hau Berriozarren. X

Jose Maria Satrustegirekin
solasaldia



Ikerketa lanei eskaini nahi die denbora gehien Jose Maria Satrustegik.

LUIS AZANZA

«Nire gauzetan lan egiteko unearekin amets egiten nuen eta orain iritsi da»

Jose Maria Satrustegi euskaltzain eta ikerlearekin mintzatu gara Arruazun

Jose Maria Satrustegi euskaltzain eta ikerle arruazuarraren ibilbidea laburbiltzea zaila da oso, joria eta anitza baita bere ekarpena. Euskalgintza eta antropologia izan dira bere bizitzan jorratu dituen gaietako bi. Bietan ere aspalditik datorkio zaletasuna. Euskaltzain urgazle 1957an izendatu zuten, eta 1964an euskaltzain oso.

Edurne Elizondo / Arruazu

ARRUAZUKO etxean hartu gintuen asteartean Jose Maria Satrustegik. Iaz itzuli zen sorterrira, apez lanaren erantzukizuna alde batera utzi ondoren. Berriki, Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkari izatearena ere utzi du, eta ikerketari eskaini nahi dio orain denbora guztia.

■ **40 urtez lanean aritu ondoren, erretiratu eta herrira itzuli zinen berriro iaz. Apez laneko ardurak lehenbizi, eta Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkari izatearena ere utzi du. Asko aldatuko zen zure bizitza.**

Lehendabiziko aldiz nire bizitza osoan, nire lanetan aritzeko denbora badut orain. 40 urtez egin dut lan, bederatzi Luizaiden eta 31 Urdiainen eman ditut apez. Eta horrekin batera, Euskaltzaindiko gora-behera guztiak. Amesten nuen noizbait hainbeste urtetan bildutako gauzei irteera bat emateko eta nire lanetan sar-

tzeko unea iritsiko zela, eta orain iritsi da.

■ **Ikerketari eskainiko diozu, orduan, zure denbora guztia.**

Bai. Nire bizitza osoan landu ditudan bilketa gaiak eta eginda ditudan lan guztiak sakondu nahi ditut, garbitasuna ezarri, bideratu. Aztertu nahi ditut, hango eta hemengo soka muturrak hartu eta sakondu.

■ **Antropologian sakondu nahi duzu orain, beraz?**

Horretan nabil gaur egun batez ere, baina ikerketa lan sakona da, interdisziplinarra, beste autore askorekin harremanetan egiten

«Lanagatik ez naiz sekula nekatu baina Euskaltzaindian azken aldiran alderantziz gertatzen zen, dena burokrasia zen eta itotzen nintzen»

dena. Azken sei-zazpi urteetan leku askotako antropologoak ari zaizkit deika, lanean hasteko eskatuz eta bultzatuz. Orain artean nire antropologia lana izan da bilketan aurkitu ditugun ipuin eta mitoei sinbologia aldetik esanahia bilatzea, antropologia kulturala. Eta horretan jarraitu nahi dut, baina oraingo biologo eta antropologia fisikoko gazteek bultzada handia ekartzen dute, bide berriak irekitzen dituzte eta nahi dute gu erabat hor txertatzea, gure ekarpena jakingarria baita haietaz. Eta lanean hasi nahi dut, ikus dezaten ez dela gezurra ematen dudana hitza. Baina aurretik hitzartutako hainbat lan badut egiteko.

■ **Zer duzu orain esku artean?**

Aspalditik badut bi edo hiru liburur irteerarik gabe. *Euskal testu zaharrak* atera nuen, lehendabizikoa, eta bigarrena prest daukat. XVI. mendeko testu berriak agertu dira, lehendabiziko liburua atera nuenean ezagutzen nituen halako bi edo hiru bider gehiago.

Euskal izendegia ere hor dago, beste hainbeste hitzen zain. Bestalde, enpresa batek eskatuta hemengo ipuinekin liburua egin behar dut, euskaraz eta erdaraz.

■ **Denbora gehiago izanen duzu orain, Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkari izatearena ere utzi baituzu. Nekatuta al zeunden hainbeste urteren buruan?**

Nekatuta ez, azkenaldian ez bainuen deus egiten nekatzeko. Lanagatik ez naiz sekula nekatu, aurrera jarraitzeko indarra eman dit beti, baina alderantziz gertatzen ari zen. Denbora alferrik galtzea zen, burokrasia baitzen

«Bultzatzaile nagusiak Diputazioan izan genituelako gauza asko egin ahal izan genuen, bestela ez dakit zer izanen zen hemengoa»

dena. Itotzea zen. Eta bi egun galdu behar nituen astean niretzat txorakeriak diren horietan? Ez nago ohituta. Orduan pentsatzen hasi nintzen: nik honengatik utzi behar ditut ikerketa lanak, astean bi egun galtzeak zer ekartzen duen kontuan hartuta? Ez nuen nahi, eta Euskaltzaindiari erran nion garaia iritsi zela nik kargua uzteko, lan hori edozeinek egin zezakeela. Eta urte askotan egon naiz borrokan.

■ **Luzaiden hasi zen zure borroka euskalgintzaren munduan. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?**

Gerra ostean aipatzerik ere ez zegoen euskararen arazorik. Guk makila hartu genuen eta eraztuna erabili dugu euskaraz hitz egiteagatik. Gurasoei presio handia egin zitzaion guri euskaraz ez egiteko, eragozpena zela eskolarako. Eta gerra ondoko trauma horiek guztiak lur jota utzi zuten gure herria eta gure euskara. Ni seminarioan nengoen ere, beldurra genuen, zigortuak ginen, eta euskara baztertu nuen nik han. Seminariotik Luzaidera joan nintzen eta han euskara ikasi behar izan nuen, ez bainuen deus ulertzen

hasieran. Eta han konturatu nintzen zer aberastasuna zegoen herrian.

■ **Eta han hasi zinen lanean.**

Nafarroan lagun talde bat zegoen zerbait egin nahian. Pentsamendu bat zuten: euskera zapaldu ondoren zerbait egin behar zela haur eta gazteekin burua jasoarazteko. Eta horrela hasi ginen haurrentzako sariak prestatzen. Diputazioak egiten zituen eta horrela jendeak ez zuen beldurrik. Oso garrantzitsua izan zen hori. Euskal festak prestatu genituen, bertso txapelketak... Hamar urteko lana izan zen, lurra lantzeko, beldurra galtzeko.

■ **Nola lortu zenuten Diputazioaren babes?**

Diputatu nagusi oso jatorrak izan genituelako. Pertsona kontua izan da beti. Dozena erdia izan ziren baina pertsona horiengan bagenuen konfiantza. Gortarik, adibidez, ez zuen inolako eragozpenik jarri inoiz, berarekin denak egiten zuen aurrera. Ni Euskaltzaindian sartu nintzenez ere bere ordeko bat bidali zuen bera kanpoan zegoelako. Gizonak egin dute lan guztia. Gero Felix Huarte etorri zen eta berarekin ere aurrera. Urmeneta ere hor zegoen. Bultzatzaile nagusiak Diputazioan genituen. Eskerrak horri, bestela gaur Nafarroan ez zegoen euskararen usainik ere. Beste hamabost urte galdu izan bagenu, hemengoa ez dakit zer izanen zen.

■ **Fontes Linguae Vasconum eta Cuadernos de Etnologia y Etnografía de Navarra aldizkariak orduko borrokaren emaitza dira. Nola sortu zenituzten?**

Jose Maria Satrustegirekin
solasaldia

«Hoberena izanen litzateke kultur mailan denok bat egitea eta banaketarik gabe bultzada orokorra ematea euskarari»

Uste genuen ez zela aski esatea jendeari euskara mintzatzeko ez bazuten deus irakurtzeko. Eta horrela, lehendabiziko *Principe de Viana* euskarazko aldizkaria sortu genuen, jendeak euskara irakurriari beldurra galtzeko. Horrekin batera, nik ikusten nuen egiten genituen euskarazko lanek ez zutela aldizkaririk argitaratzeko, ez etnografian eta ez euskal testuetan. Eta *Fontes* eta *Cuadernos* sortu ziren horrela, Urdiaingo nire sukaldian, Jose Esteban Uranga Principe de Vianako zuzendaria zenarekin. 1969ko hasieran agertu ziren lehenengo zenbakiak.

■ Nolakoa zen orduko euskaltzaleen arteko giroa?

Pedro Diez de Ultzurrun zen motorea, eragilea. Ez ginen asko, baina bat ona bada, nahiago dut hori hamar mila baino. Hor ziren Urmeneta, Irigarai, Jose Agerre eta beste batzuk ere. Giro jatorra genuen, lehendabiziko lagunak bainekin.

■ Asko borrokatu behar izan zenuen.

Bai, baina borroka polita da, bizia, ez nuke sekulan aldatuko. Borrokarik gabeko bizia, azken finean, hilerrietakoa baita. Borroka kristaldiak sortzen ditu, etxe berri bat egiteko lehendabiziko zaharra bota behar dugu. Guk krisia egin genuen baina ikuspegi onarekin, bagenekien erentza on bat eta etxe hobe bat egiteko lanean ari ginela.

■ Etxea aipatu duzula, Euskaltzaindiaren etxea Nafarroan jartzeko ere hainbat buruhauste izan zenituen, ezta?

Hogeitun urte eman genituen Nafarroako ordezkariak sortu nahian. Gure lana orduan diputazio batekin eta besteekin urratsak ematea izan zen. Tokia hitz eman zitzaigun han-hemenka baina ez zen lortzen, 1972. urtera arte. Kontu Ganbaran eman behar ziguten. Etxea inauguratzeko hamabost egun falta zirela Diputazioa aldatu zen, Urmeneta atera eta Del Burgo sartu zen. Eta berak erran zuen ez zela inauguratuko. Borroka gogorra izan zen. Azkenean, inaugurazioaren eguna ailegatu zenean Nafarroako Museoa gela bat prestatu zigun Diputazioak, antzokiko oihalaren atzealdeko gela. Baina toki bat zen eta ordezkariak sortu genuen. Sei-zazpi bat urte eman genituen han, oraingo egoitza aurkitu arte. Bide eta ate asko zabaldu genituen orduan. Gaur egun asko aldatu da Euskaltzaindiaren zeregina.

■ Zertan aldatu da?

Orain, erabaki asko hartzen da egunero eta normalizazioan lan asko egiten da. Baina orduan, bultzatzaile lana ere egin behar genuen. Horri esker sortu zen, adibidez, AEK. Nik Luzaiden euskara eskolak ematen nituen eta Ricardo Arregik gutuna idatzi zidan esanez hori ez zela nahikoa Luzaiden egitea, Euskal Herri osoan egin behar genuela. Alfabetatze Taldea sortu genuen, eta ge-


ro Euskalduntze eta Alfabetatze Taldea. Baina gero tira-birak sortu ziren eta etena gertatu zen, euskara ez ziren gauzak sartu zirelako, politika...

■ Horrek min egin dio euskarari zure ustez?

Hoberena izanen litzateke kultur mailan denok bat egitea eta, hainbeste banaketarik gabe, euskarari bultzada orokorra ematea kataluniarrek egiten duten bezala. Pragmatikoagoak dira. Nire ametsa hori izan da beti eta horretan jarraituko dut, baina ikusten duzunean ziria sartzen dizutela... Ni erabat baztertu nau hainbat jende, bakarrik bere politikakerietan ez dutelako amore ematen. Baina nik hartutako bidea jarraituko dut. Oraingoz hobe da Luzaiden esaten duten bezala *akort eta apart*. Batek egiten duena besteak hankaz gora botatzeko, hobe da bakoitzak berea egitea.

■ Hainbat eta hainbat urtetan euskararen alde hainbeste lan egin ondoren, nola ikusten duzu gaur egun?

Trenak abiadura ezberdinekoak dira gaur egun, eta berdin gertatzen da euskararekin. Guk aldapan gora ezin arnasa hartuz ibiltzen zen trentxoia genuen, baina ibili eta bidea egin genuen. Ez zait euskararen alde egindako ezer damutu. Gaur kontuan hartu behar dugu era askotako jendea eta iritzi askotako buruak biltzen dituen herri batean gaudela. Gure garaian zaharrak bakarrik mintzaten ziren euskaraz, eta gaur, haurren ahotan dago, baina ez nahi nukkeen hainbat kalean, eta horrek kezkatzen nau. Gaur dakigun guztiok euskaraz egingo bagenu kataluniarren parean egonen ginatke, baina zoritxarrez, ez gara kataluniarrek. Jaso dugu burua? Gure esku dago.



Euskaltzaindiko lan burokratikoak «ito» duela aitortu du Satrustegik.

LUIS AZANZA

Literatura, bete ez duen zuloa

JOSE MARIA SATRUSTEGI ikerlari arruazuarraren ekarpena joria eta anitza izan da orain artean, bere zaletasunak bezala. Baina zaletasun horien artean bada bat beretzat berezia dena, gehien asezten duena, gogokoen duena. Eta ez da antropologia, literatura baizik.

Literatura aspalditik du lagun Jose Maria Satrustegik. «Seminarioan nengoanean, Espainiako klasiko guztiak irakurri eta ongi irakurri nituen hango liburutegian. Liburutegiko giltza eman zidaten isilik eta, horrela, bertan ematen nuen ahal nuen denbora guztia, irakurtzen eta irakurtzen», dio Jose Maria Satrustegik.

Seminarioko liburutegian klasikoak irakurtzen

eman zuen denbora horrek, hain zuzen, mesede handia egin zion euskalgintzaren munduan barneratu zuten XVI. eta XVII. mendeko bi testu itzultzeko. «Seminariotik atera eta irakasle izan nuen Goñi Gaztanbidek erran zidan bi testu aurkitu zituela eta nik irakurri behar nituela. Eta nik ezetz, baina agindua eman zidan, eta hartu egin behar izan nituen 600 orrialdeak», gogoratzen du Satrustegik.

Goñi Gaztanbidek emandako agindua bete eta XVI. mendeko testua hartu zuen lehendabiziko esku artean. «Irakurtzen hasi eta berehala konturatu nintzen klasikoek bertsoak agertzen zirela bertan, Rojas, Quevedo...». Nabarmendu

duenez, aurkikuntza ikaragarria izan zen Satrustegirentzat bere lehen lan hura. «Bi asteko oporrak hartu eta seminarioko liburutegian sartu nintzen testu guztiak aztertzeko». Euskal testu zaharren alorrean egin duen lan oparoaren hasitapena ere izan zen ordukoa.

Aspaldi sortu zitzaion zaletasun hura ez da agortu. «Antropologiak jada pozoitu nau, baina nire benetako hutsunea, bete ez dudana zuloa, literatura da. Seminarioan jada poesia idazten nuen, eta handik atera nintzen literaturan murgilduko nintzen buru-belarri baina biziaz ez dit astirik eman. Zerbait egin nahi banu literatura egiten nuke, literatura ba-

karrik landuko nuke, baina beste guztia egin dudanez, eta esku artean hainbat gauza daukadanez, amestu egiten dut literatura, eta ahal dudanean sartzen naiz. Beraz, tarteka ikusiko da nire literaturarekiko zaletasuna», dio Jose Maria Satrustegi ikerlari arruazuarrak.

Eta tarte horiek bilatzeko eta aurkitzeko asko ahalegintzen da Jose Maria Satrustegi. «Ideiak agertzen direnean idatzi egiten ditut, artikuluak egiten ditut. Gustatuko litzaidake gauza askori buruz idaztea, baina ezin naiz dedikatu. Beste guztia ere ez da nahi izatea, hor daukat. Eta ezin da ahaztu edozeinek ez duela hau, edozeinek ez dituela nahi ditudan loturak».

Eta literaturaren alorrean utzi du Jose Maria Satrustegik ekarpenik, 1972. urteko *Ekaitza* eleberria hain zuzen. «Eleberria baino gehiago, eleberritxura eman niola esan daiteke. Urdiainen nengoan idatzi nuenean. Orduan, hiltzen ari zen herria zen, denek alde egiten zuten kanpora. Antropologia lana egin nuen, eta gero hura jantzi, *Ekaitza* sortzeko. Urteko sasoi bakoitza liburuko atal bat zen, eta protagonista Euskal Herriko txakur gazte bat, kanpoko beste txakur batek botako zuena eta bere burua urkatuko zuena. Galdera bat planteatzen nuen azkenean: euskarak ere bere burua urkatuko du?», esan du Jose Maria Satrustegik. X

Xanti Begiristain

Jende asko dago gose greban

■ Gauza bitxia da ohartzea, zoritxarrez, komunikabide publiko eta pribatu profesional eta inpartzial gehienek egiten dituzten bereizkeriek albiste eta gertaera berekin.

Hara, Donostiako Artzain Ona katedralean urte bat baino dezente ere gehiago daramate gose grebak edota protesta baraualdiak egiten, hainbat motatako pertsonak eta kolektibok, eskatzeko ekar ditzatela Euskal Herrira euskal presoak. Ekintza hau ez da txantxetako. Dagoeneko makina bat jendeke parte hartu du aldarrikapen honetan. Esan bezala, hamalauren bat hilabete daramate, eta halaber, txanda ugari igaro da. Ziur aski 60 baino gehiago. Honi guztiari erantsi behar zaizkio egiten dituzten eta gauzatzen ari diren ekitaldi guztiak.

Esandako guztia hobekixeago uler dadin, hementxe bertan jarriko ditut adibide batzuk. Hara, une hauetan denok dakigu bi pertsona daudela ETA erakunde armatuak bahituta. Bide batez, esan dezada, nahiago nukeela horrelakorik gertatzeko aukerarik ez balego, hau da, herri honen eskubide demokratiko, juridiko eta judizial guztiak errespetatzen direlako, baina zoritxarrez, hori oraindik amets hutsa baino ez da. Nioen bezala ba, bi pertsona bahiturik daude, eta beraz, jende askok eskatzen du haien askapena. Hau oso normala da. Baina hementxe iristen dira irregulartasunak eta desorekak. Hara, bi pertsona horien askapena eskatzeko batzuek egindako ekintza guztiak (Administrazioarenak, BAKenak eta



Iruñean, berriz, jadanik badaramate pare bat aste jan gabe zortzi pertsonak. Horien artean bada bat alkatea dena, eta besteak, Hegoaldeko herrialde guztietakoak dira. Talde honek ere, gose greba egiteaz gain, beste ekintza batzuk ere burutu ditu, eta jarraitzen du egiten.

Pertsona hauen berezitasuna zera da, alegia, ez direla baraualdi txandak egiten ari, baizik eta, printzipioz behintzat, bukaera jakinik gabeko moduan, euskal preso-egoera eta beren eskubideak normalizatzen diren arte, hau da, Euskal Herrira ekarri eta giza eskubide guztiak errespetatzen dizkieten arte. Ikusi egin behar zertan bukatzen den hau guztia.

Niretzat, zerbait behinik behin oso garbi dago, hots, Donostian eta Iruñean egiten ari diren aldarrikapen hauek ez direla inondik inora ere ahuntzaren gauerdiko eztula, eta hala eta guztiz ere, ni, komunikabide publiko eta pribatu ofizial demokratiko eta inpartzial gehienek aldetik, ikusten ari naiz egundoko utzikeria albiste hauek tratatzean, eta tristeena da nahita egiten dutela jakitea.

abar), komunikabide gehienek esaten, berresaten, aipatzen, goraiatzen eta altxatzen dituzte zeruraino! Eta besteak, aldiz, Amnistiaren Aldeko Batzordeenak, Senideak-enak, Euskal Herria Askaturenak eta abar, ixiltasuna erabiliz tratatzen dituzte, hau da, ez dituzte ia-ia inoiz ere esaten eta azaltzen, kritikatzeko eta beren izen ona zikintzeko ez bada bederen.

Buru eta adimen pixka bat dugun guztiok ikusten ditugu tamaina horretako bidegabekeriak, guztiz nabarmenak baitira. Horrexegatik hemendik, ezintasun honetatik eta besterik ezean, aprobeixatu nahi dut injustizia hauek salatzeko, eta aldi berean, aldarrikatzeko jende asko dagoela aspaldidanik etengabeko gose greban, sufritzen eta herri xehe honen gutxieneko eskubide batzuk eskatzen.

Ziur naiz beste aldekoen adinako merezimendua dutela, gutxienez, komunikabideetan ateratzeko *madarikatu* hauek, baina zer egingo diogu ba? Badakigu, gehienetan, agintea dutenek ez dutela zuzentasunez gobernatzen.

Eutsi goiari! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sakan Mix V eta fini

■ Juan Goikoetxea Zabalo etzen Arbizuko eta etzigan gauza haundirik utzi izkiriaturik, halaz ere, Arbizuko erretore ihardun zuen berrogei urtetan gerizpe mardo eskeini zion hainbati, eta euskaltzaleen topaleku hauta bilakatu zen bere abaroa. Larraun aldeko Lezaetako semea, 1905.eko otsailaren 19an Uhalde etxean sortua dugu. Gasteizko apezgaitegian ikasi ostean, 1928.ean apezte eta bost urtez Ultzamako Illarregin arizan zen. 1933.ean Arbizura joko zuen, eta bertan izan zen Donostian 1973.eko ekainaren 30an it all arteraino. *Principe de Viana* aldizkariak zuen euskarazko gehigarrian noizean behin plazaratzen zituen Arbizuko berriak. Aldizkari honetatik ere omenaldi beroa eskeini zitzaion, eta bere omenez Arbizun 1973.eko urriaren 28an egin zen mezan aldizkariaren zuzendaria zen Zarrakatzeluko Garde jauna bera bildutakoei euskaraz zuzendu zitzaion.

Izenak salatzen duen bezala, irai Felix Arbizuko bazen herri honetakoa, Lutxi etxekoa hain zuzen ere. Mende izenez Jesus Flores Goñi genuen hau 1904.ean sortu zen. Kaputxino sartu (1921.8.14), eta apeztearekin batera (1929.3.29), Txina aldeko Pingliang lur aldera bidali zuten misiolari, Kansuko misiotegira hain zuzen. Hantxe zendu zen 1936.eko maitzaren 24an tifus gaitzak jota. *Zeruko argia* fraide buruñurdunek zeramatzen argitarapenean idatzi zituen fitaen bite hango kronikak. Aurreko astean aipatu Felipe raña herikideak 1972.ean argitaratu batean etzuen zalantzarik: «Urte asko dira urrutiko Txinara misiolari bezala joan eta han santu bat bezala il zela». Horrenbeste hastandu etzen beste kaputxinotarraren ekarpena doi interesgarriagoa dukegu gurean, Arbizuko ez bazen ere. Aureli Etxarri Aranazko zenaren gainera ari gara naski. Honek hiru idazki utzi zizkigun, llaburrak eta eliz kontuez baina, beste modutan ezin zitekenez. Fraide honen lehenbiziko lana *Migel gotangeruari bedratzi-urrena* dugu, Iruñeko kaputxino arren moldiztegetatik eta 1956.ean elki zena. Ezta harriztekoa sakandar batek horrelako saltsatan sartzea: «Ez du neiko euskaldunak iru edo lau aldiz Aralar mendira igotzea, ez. Geiago eskatzen dio bere biotzak. Bere etxean izan nai du, orregatik san Mike Aralar menditik urtero jexten da bere semeak ikustazera, oiekin bizitzera, badijoa erriz erri ta erri bakoitza barna, eta nola berotzen da euskaldunaren biotza san Mikel beren artean ikustean». Alabaina dena ez da horren aisa eta: «Nola bizi ala il, dio saera zarrak. Askok emeri bizitza lasai bat izan, ta gero betiko zoriona izan nai dute. Gaiztoak ba gera, lasai bizi bagera, san Mikelen suzko ezpata zorrotza guregan eroriko da erabat gaitzeko». Eta horrelakoekin batera badira hau bezalako beste bereizirik re: «Maiz eskatzen da aingeruak maitatzea. Baño guk euskaldunok beste aingeruak baño geiago aingeru bat maite bear degu: san Mikel aingerua. Gure zaindaria delakoz. Esan dezakegu san Mikel ta Euskalherria bat dirala». Edozein modutan ere, aleki hau urri geratu zatekeelakoan edo, berrargitara eman zuen, beste lan zabalago baten barruan, *Bederatzi urren bearrezkoenak eta eliz otoiitza batzuk* izenburukoaren barruan alegia, Zarauzko Itxaropenean 1958.ean ageri zena. Aurrekoan bi baztandar izan zituen zensore, Franzisko Arizkongo ordenkidea eta Blas Fagoaga erratzuar ezaguna, ez edonolanahikoak beraz. Honetan ordea, Dorraoko Fidelek lagundu zion Arizkongoari zeregin berberan: «Liburu onen zergatia?»: Askotan entzun oi diet errietan apaizei: ez degu inun euskerazko bed ratzi urrenak dakartzkien liburu bat ere arkitzen. Eta bateonbat sakabanaturik arkitzen bada, euskera itsusian egiña dago. Ainbeste aldiz entzun ditut itz auek, alako egun batean lanari lotu nintzala. Negargarria da, alegia, Euskalerriko elizetan euskerazko bederatzi urrenik ez dalakoz erderaz egitera bearturik egotea. Edozelan horren temati eskatzen zutenen artean ez liteke Dorraoko erretorea.

Horrenbestetan eraman eta ekarri Principe de Viana erakundeak argitara ematen zuen euskal gehigarriaren 63. zenbakian, 1971.eko maiatzekoan hots, *Anko Sendoa* ezizenaren azpian zegoenak argitara eman zuen *Eliza eta euskara* artikuluan elizaren jarrera euskararekiko saminkin deitoratzen zuen, eta adibide batzuk ematearren, Dorraokoa zekarren: «Ergoieneko Dorraun, denek euskaldun arrontak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz, jendea eraldunduz, eta erotuz, obeki kristau dadin, nonbait».

Erantzuna etzen berehala etorri, pentsatu behar bide zuen iharduki aurretik, eta, ber urteko ondar hiletan izan genuen Dorrauko apezte zenak igorria irakurgai Anko-sendoari erantzun idekia *Berlain petik* artikulua argitara eman zuenean: «Ez zaitut ezagutzen, nere ustean: ez dakit nor zeran eta zein zeran, estaltzen dezu zure eglazko izena izen-ordezkoarekin, baño zure mayatzako idatzian naikoa agertzera ematen dezu zerorrek, ezpore edo kotxu (erderaz criticón) sumindu bat zerala. Ez dut batere ongi artu idazkai orretan esaten dezuna. Dizu Ergoieneko Dorraun denak euskaldun arrontak eta elizan erderaz. Bai, egia da baño badut nere arrazoya zuri inporta ez dakizuna jakitea. Ez du batere kalterik egin eta ez du egiten ere euskarari elizan erderaz egiteak, bestela ez ziran denak euskaldun arrontak izango». Noski Anko-sendoa etzela erantzuten kezkatu ere egin: «Dorrauko jendeke, nere benetako goremnik beroenak, bertako elizaren joeragatik ere, euskaldun izaten irauten dutelakotz». Etxarri Aranazko Aurelirengana itzuliz, esan behar da hirugarren idazki plazaratu zuela oraino, *Meza saindua* izenburukoa, Iruñeko Aranburu argitaletxean 1958.ean, Zensorea ere etzen edonor, Murietako Felipe hain zuzen. Hontaz iruzkin llaburra egin zion Artetxek ber urteko *Egan* aldizkarian: «Gure elizetako utsune negargarri ori betetzeko, aita Aurelio Etxarri-Aranazkuak liburutxo polit eta oso erke bat atara du oraintxe. Bi pezeta baño merkeago saltzen da; peza bat eta amasei soretan. (...) Baztango euskara xamurrean eskribitua dago». Eliz kontuetan ez dakigu zenbaterainoko zuzen zihonantz gure on Jose Artetxe, baina euskalkiari dagokionez, guziz oker bai zebiltzala baderitzogu, izan ere, erran bat edo beste esateak ez baitu euskara baztanerazten. Guziarekin, guziz bat bagatoz salneurriaren merkearekin, bai eta egungo liburuendako, beti ere proportzioak gordeaz naski, halakorik desiratzten. ■

Gaztelera-Erronkariara hiztegia bidean

Bernardo Estornesen lana Hizkuntz Politikak eta Principe de Vianak argitaratuko dute

Estornes Lasa anaiek joan den urriaren 29an Donostian jaso zuten Izabako herriaren omenaldian, Bernardo Estornesen Gaztelera-Erronkariara hiztegia argitara emateko konpromezua hartu zuen Nafarroako Gobernuak. Orduz geroztik lau hilabete igaro direnean, Estornesen ametsa egia bilakatzeko bidean dela erran daiteke. Argitalpenaren arduradunek lanaren inguruko zehaztasunak eman dizkigute.

Fernando Hualde / Izaba

«GURE ASMOA ahalik eta lasterren argitaratzea da, oso obra garrantzitsua baita, eta erronkariara ez dugulako galtzen utzi behar». Hitz horiekin iragarri zuen Fernando Perez de Viñasprek, Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiko buruak, Bernardo Estornes Lasa izabarrak egin Gaztelera-Erronkariara hiztegia argitara emateko Gobernuaren konpromezua, joan den urriaren 29an Donostian Estornes anaiei egindako omenaldian.

Perez de Viñasprek jendarean konpromezua hartu zuenetik lau hilabete igaro direnean, erran dezakegu Gaztelera-Erronkariara hiztegia urte honetan bertan gauzatzeko bidean dela, Hizkuntz Politikako langileen lan anonimoari esker. Azaroan helarazi zizkion bertako buruari Bernardo Estornesek makinaz idatzitako 600 orrialde, urteetako lan eta ikerketaren fruitu. Jaso eta berehala, euskari informatikoan jartzeko lanari ekin zioten Hizkuntz Politikako langileek.

«Lan guztia pikatu dugu eta fotokonposizio prozesua ere amaituta dago —azaldu du Jose Manuel Urroz Hizkuntz Politikako Programazio eta Ikerketa Zerbizuko zuzendariak—, eta orain, obra guztia berrikusten ari gara». Koldo Artola hizkuntzalari donostiarrak —erronkariaren aditua eta Bernardo Estornesen laguntzaile nekazina— hartu du hiztegiak jasoko dituen 20.000 hitzak berriskutuko ardura. Hainbat hilabete iraungo duen lan honen ondoren, Principe de Viana erakundeak hartuko du bere gain obraren diseinuaren eta argitalpenaren ardura.

«Hasieran mila ale kaleratzeko asmoa genuen, Mariano Izetaren hiztegiarekin egin genuen bezala —azaldu du Jose Manuel Urrozek—, baina Izetaren hiztegi baztandarraren ale guztiak agortu dira dagoeneko, egun gutxitan, eta orain bigarren edizioa kaleratuko dugu. Hori ikusita baliteke Gaztelera-Erronkariara hiztegiaren 1.500 ale kaleratzea, baina oraindik ez dago erabakitak».

Datorren maiatzean 90 urte beteko ditu Bernardo Estornes



Urzainki herria (Erronkariko bailara).

FERNANDO HUALDE



Bizitza osoa eman du Bernardo Estornesek Gaztelera-Erronkariara hiztegia osatzen.

ARTXIBOKOA

Lasa izabarrak, eta bere bizitza osoan egin du lan erronkariara, bere bailarako euskara, berreskuratzeko. Hiztegia osatzeko Resurreccion Maria Azkueren obra eta Espainiako Hizkuntza Akademiaren hiztegia hartu ditu Estornesek oinarri. Erronkariaren 20.000 hitz bildu eta gero —Bernardo, Mariano eta Jose Estornes Lasa anaiek erronkarie-

rari eta Erronkariko bailarari buruz argitaratu duten guztia ahaztu gabe—, euskalki honen ia erabateko berreskurapenaz hitz egin daiteke, nahiz eta orain dela hainbat hamarkadaz geroztik ez erabili.

Azken lan honi —450 eta 500 orrialde bitarte izanen dituen liburu bakarra— aditz forma ezberdinak gehitu dizkio Bernardo

Nafarroako euskalkiak berreskuratuz

GAZTELERA-ERRONKARIARA hiztegiaren argitalpenak amaiera bikaina jarriko dio Nafarroan azken aldiaren euskararen aldaerak berreskuratzeko egin den lanari. Iaz, Iñaki Caminok *Aezkeraren dialektologia azterketa* tesia aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, Gaizezen. *Cum laude* kalifikazioa jaso zuen Caminoren tesiak. Aezkoako euskararen dialektologiari buruzko hamabi urteko ikerketa lanaren emaitza izan zen aipatu lana. Aezkerari arreta berezia eskaini zion Caminok, eta, era berean, aldaera horren inguruan berritasun garrantzitsuak ekarri zituen lanak.

Hilabete gutxi batzuen buruan, *Baztango goiztegia* hiztegia eman zuen argitara Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiak. Mariano Izetaren lan bikaina da hori. Liburu bakar batean Baztango bailarakoak diren 1.200 hitz eta 300 esaera zahar jaso ditu idazle baztandarrak. Hizkuntz Politikak ezusteko atsegina hartu du hiztegi baztandarrari esker, plazaratu zituen lehenengo mila aleak aste gutxitan agortu baitira. Hori dela eta, laster 700 aleko bigarren edizioa kalean izanen da Hizkuntz Politikaren eskutik.

Estornesek, horien artean hika, zuka eta baita Erronkari inguruan erabiltzen den xuka forma ere. Azken hori Nafarroan baino ez da erabiltzen, Erronkari eta Zaraitzuko bailaretan eta Luzaiden, agian herri horrek mugaz bestaldeko euskalkiekin zuen eta duen harremanari esker.

Erronkariko bailaran bertan dauden aldaerak ere jasoko ditu Bernardo Estornesen hiztegiak. Hala, ikus daitezke Bidankozen eta Zaraitzuko bailararen arteko hizkuntz loturak. Izabako aldaera ere agertzen da. Erronkariko herri horretan, adibidez, izan aditzak ez du za erroa, batez ere lehen aldiak. *ninden / zen / ginden / zinden / zindein / zren erraten zuten Izaban, eta ez nintzen / zen / gintzen / zintzen / zren*, bailarako beste herrietan bezala.

Jose Manuel Urroz Hizkuntz Politikako argitalpenen ardura-

dunak onartzen du hagitz obra inportantea dela Bernardo Estornesek egindakoa. «Hiztegiak izan dezakeen arrakasta editoriala alde batera utzita, guretzat garrantzitsuena da lan honek erronkariaren berreskurapenari egin diezaiokeen ekarpena. Zalantzarik gabe, Estornesek etorkizunean erronkariari buruz egin daitezkeen ikerketa eta ekarpenen oinarria ezarri du lan honen bitartez», azaldu du Urrozek.

Bernardo Estornesek egindako lanari eta Nafarroako Gobernuak berau argitaratzeko eskaintako laguntzari esker, Nafarroako kulturari zorianak eman ahal izanen zaizkio lan honek argia ikusten duenean. Estornes Lasa anaiek jaso dezaketen omenaldirik ederrena ezezik, euskalkirik zaharrena babesteko tresna izanen da Bernardo Estornesen hiztegiaren argitalpena. X.

◆ Angel Pascual ◆ Fondo Formacion-eko Nafarroako zuzendaria

«Kualifikatuagoak izanen dira langabetuak»

Joan den asteartean gazteen eta lan merkatuari buruzko jardunaldiak egin ziren Iruñean Fondo Formacion taldeak antolatuta. Enplegua sortzeko bide berriak aztertzeaz gain, Fondo Formacion-ek iraila eta abendua bitartean Nafarroako hainbat herritan abian jarritako Infolan zerbitzuaren emaitzen berri eman zuen.

Edurne Elizondo / Iruñea


ANTSOAIN, Barañain, Lizarra, Lodosa, Tuter, Zangoza, San Adrian eta Zizur Nagusian jarri du abian Fondo Formacion taldeak Infolan zerbitzua, gazteei lana aurkitzen laguntzeko. Angel Pascual elkarteko Nafarroako zuzendaria mintzatu da gurekin lortutakoari buruz.

■ Zer-nolako proiektua da Infolan eta nola garatu duzue?

Proiektuaren oinarria Nafarroako Gobernuaren proposamen bat da, Gazteria eta Kirol Institutuaren eta Lan Zuzendariaren bidez egina. Proiektuaren helburua gazteei lana bilatzen laguntzeko egitura sortzea izan da. Horretarako, Nafarroako Gobernuarekin ezezik, herrietako administrazioarekin ere egin dugu lan zuzenean. Kontuan hartu behar dugu Nafarroako langabetuen % 40 baino gehiago 30 urtetik beherako gazteak direla. Beraz, Infolan zerbitzuaren bidez aholkua emateko eta prestakuntza osatzeko aukera eskaini diegu, gazte bakoitzari arreta berezia eskainiz, eta bakoitzaren jarraitpena eginez. Herri bakoitzeko egoera ezagutzea izan da lehenengo pausoa, hau da, zenbat langabe gazte zegoen, euren adina, ikasketa maila, eta abar, eta ondoren, gazte bakoitzaren ezaugarriak aztertu.

■ Nolako erantzuna jaso du Infolan zerbitzuak herri horietako gazteen aldetik?

740 gazte jo dute irailtik



Fondo Formacion enpresako Nafarroako zuzendaria da Angel Pascual.

LUIS AZANZA

abendura bitartean Infolan zerbitzura. Kontuan hartu behar dugu, orotara, langabetuen kopurua 2.123koa zela. Infolanera joan diren 740 horietatik 143k lana aurkitu dute. Eta azpimarratu behar da 740 horietatik 323 gazte baino ez dutela burutu Infolan zerbitzuak aurreikusten zuen prozesu osoa. Beraz, burutu dutenen % 45ek lana aurkitu dutela erran daiteke.

■ Zuengana jo duten gazte horien soslaiari buruz, zer azpimarratu daiteke?

740 gazte horietatik 449 gizonetzkoak izan dira, hasteko. Lortutako datuen arabera, aipatu behar da gazte gehienak gurasoekin bizi direla, beraz, ekonomiko ki dependenteak dira. Ikasketa mailari dagokionez, gizonetzkoek formazio maila apala dute, eta

emakumezkoen % 40 unibertsitatean diplomatuak edo lizentziatuak dira. Gizonetzko eta emakumezkoek dagokionez, bestalde, gehienek formazio ikastaroak egiten dituzte, baina gizonetzkoek batez ere ikastaro teknikoak aukeratzen dituzte, eta emakumezkoek mekanografia, kontabilitatea, pediatria eta antzekoak hautatzen dituzte.

■ Lan esparru berriak dira egun aipagai. Zeintzuk izan daitezke?

Horretan ari gara lanean orain, baina goiz da esparru horiek zeintzuk izan daitezkeen errateko. Kontuan hartu behar da tokian tokiko esparruak aztertu nahi ditugula guk, eta horretarako, beharrezkoa da toki bakoitzeko egoera ekonomikoa eta dauden aukerak ezagutzea. Askotan orokortasun gehiegi aipatzen da gai honen inguruan. Erraza da erratea lan esparru berriak teknologia berrietatik edo ingurugiroari lotutako alorretatik etor daitezkeela. Baina tokian tokiko egoera aztertu behar da hori ho-

rrela den edo ez errateko. Eta horretan ari gara. Enplegu forma berriak ere aztertu nahi ditugu. Eta ildo horretatik, badirudi autoenplegua izan daitekeela langabeziari aurre egiteko moduetako bat.

■ Baina hori ez da oso zaila langabezia dagoen gazte baten zat?

Gure azterketan jaso dugunez, gazteak autoenpleguaren aukerari heltzeko eta euren enpresa sortzeko prest daudela atzematen da, baina ezberdintasuna nabaritzen da emakumezko eta gizonetzkoen artean. Emakume gehienentzat zailagoa da aukera hori planteatzea. Enpresa abian jartzeko baliabiderik ez izatea da arazo nagusia.

■ Lan merkatuari buruz ere egin duzue ikerketa.

Lan merkatuari dagokionez, azpimarratu behar da bere osotasunean mugitzen dela, hau da, krisia dagoenean alor guztietan nabaritzen da, eta egoera onan denean, berdin, leku guztietan nabaritzen da. Nafarroan, adibidez,

s o s l a i a

Angel Pascual 48 urteko tute-
rarra da, eta bost urte darama
lanean Fondo Formacion enpre-
san. Tuter, jaioterria utzi eta
Iruñera etorri zen lanera. Gaur
egun, Fondo Forma-
cion enpresako Nafa-
rroako zuzendaria eta
arduraduna da.

Ez da, dena den, Tu-
tera uzten duen lehen
aldia, Oviedon egin
baitzuten ikasketak.
Hango unibertsita-
tean, hain zuzen, His-
torian lizentziatu zen,
eta Paueko unibertsita-
tean, berriz, dokto-
retza lortu zuen. Egun,
baina, gazteen eta
enpleguaren gainean
egiten du lan.

Eta ongi ezagutzen du
gazteen eta enplegua-
ren mundua, Fondo
Formacion enpresatik
bertatik egin dituen
hainbat eta hainbat
ikerketari esker. Az-
ken aldian, Nafarroa-
ko hainbat herritan
abian jarritako Infolan
zerbitzua izan du esku
artean. Orain, lan es-
parru berriak azter-
tzen ari dira.

1992-93ko krisiak automobil-
gintzari egin zion kalte batez ere,
eta 1994-95ean zuzperraldiak ere
sektore honi egin dio mesede. Az-
ken hiru urteetan enpleguari
buruz egin dugun azterketak ager-
ian utzi du industriako enple-
guak gora egin duela, adibidez,
zerbitzuen alorrean baino propo-
rtzio handiagoan. Beraz, enple-
gua zerbitzuen sektoretik eto-
rriko dela erratea, orokorrean, ez
da hain erraza. Nafarroan indus-
tria da oraindik eragile nagusia.
Horregatik, guk proposatzen di-
tugun ekimenek beti tokian toki-
ko errealitatea dute oinarri. Ez
dugu ahanzi behar lan merkatua
ez dela estatikoa, etengabe mugit-
zen dela, eta leku bakoitzean zer
egin daitekeen begiratu behar de-
la. Errealitatea aztertuz erran
daiteke Nafarroako langabetu
gazteek gero eta kualifikazio ho-
bea eta ikasketa maila handiagoa
izanen dutela, kontuan hartu be-
har baita eskolaratzea gero eta
beranduago bukatzen dela, eta
aukera gehiago dagoela ikaske-
tak jarraitzeko. x

«Nafarroako langabetuen % 40k baino gehiagok 30 urte
baino gutxiago ditu»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

